

AURKIBIDEA

1. Hitzaurrea eta justifikazioa	1-3
2. Araudia	4-5
3. Gazte berriemaileen programa	6-11
• 3.1. Zertan datza programa?	
• 3.2. Programaren ardatzak	
• 3.3. Esku hartzeko esparruak	
• 3.4. Helburuak	
• 3.5. Inplikaturako agenteak eta haien funtzioak	
4. Berriemaileak	12-15
• 4.1. Zer dira gazte berriemaileak?	
• 4.2. Profila: nor izan daiteke berriemaile?	
• 4.4. Berriemaileen topaketak	
5. Metodologia	16-17
6. Prestakuntza	18-19
7. Berriemaileen programaren ebaluazioa	
8. Egutegia	22

1 HITZAURREA ETA JUSTIFIKAZIOA

Gazteentzako Informazioak gazteentzat interesa duten gai guztiak hartzen ditu barne, baita informazioa, aholkularitza, laguntza, orientabidea, prestakuntza, berdinkideen arteko jarduerak, sareko lana eta zerbitzu espezializatuetara bideratzea ere, gazteek gizartean parte har dezaten eta ahaldun daitezen.

Gazteei informazioa emateko eta laguntzeko zerbitzuek kalitateko informazioa eta orientabidea ematen diete, beren bizitzak modu konstruktiboan gidatzen dituzten erabaki kontzientek har ditzaten.

Hona hemen zerbitzuen abantailak:

- Informazio independentea, fidagarria eta osoa ematen diete, modu profesionalean.
- Aukerei buruzko ikuspegi orokorra ematen dute, gazteen beharrak kontuan hartuta.
- Egiatztatutako informazio-iturri anitzetan oinarritzen dira, eta gazte guztiak eskura ditzaketen komunikazio-kanalen sorta zabala erabiltzen dute.
- Gazteei informazio-gainkarga kudeatzen laguntzen diete, eta alfabetatze mediatiko eta informatiboa sustatzen dute.
- Gazteei beren eskubideak ezagutzea bermatzen dute, baita eskuratzen duten informazioa modu kritikoan ebaluatu ahal izatea ere.
- Gazteak beren erabakiak hartzeko ahalduntzen dituzte. Horrela, eskura dituzten aukeretatik gehien komeni zaizkienak aprobetxatu ahal izanen dituzte.

Gazte berriemaileen programaren sorrerako helburua informazioa eta laguntza dagozkien agente guztietara iristea da. Informazioa eskuratzeko eskubidea erabat aintzatetsi da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, eta, Gazte Informazioaren Europako Gutunak dioenez, "demokrazia, giza eskubide eta oinarrizko askatasunenganako errespetuak barne hartzen du gazteek interesa duten gai eta behar guztiei buruzko informazio osoa, ulergarria, fidagarria eta erreserbarik gabekoa izateko eskubidea. Horrek aukera ematen die hauteskunde hauetan diskriminazio edo eragin ideologikorik gabe parte hartzeko".

Gazte berriemaileen programa gazteentzako informazio eta dinamizaziora bideratutako esku-hartze programa da, berdinkideen arteko lana eta gazteen partaidetza sustatzen dituena. Gazte berriemaileek eginkizun protagonista eta aktiboa hartzen dute, erakunde informatzailearen eta gazteriaren artean transmisio-uhale gisa, informazioa gazteentzako gertuko kanal baten bidez hedatzen, haien hizkuntzan.

Gazte berriemaileen programak Europako mailan gazte-politiketan finkatutako programak dira. Programen izaera eta funtzionamendua kokapenaren arabera asko alda daitezkeen arren, horien ekimena maila autonomikoan gazteriaz arduratzen diren organismoek dagokie batez ere. Nafarroaren kasuan, tradizionalki, ekimena udalerrien mailakoa izan da. 2023-2024ra arte, programa garatzen zuten udalerrak Iruñea eta Altsasu ziren. 2023-2024an, NGIk programa pilotua garatu zuen Tafallan, Estella-Lizarran, Eguesibarren, San Adriánen eta Arangurenen.

Beraz, gazte berriemaileak funtsezkoak dira programa honetan. Hala ere, beharrezkoa da, era berean, gazteriaren arloko zinegotziek, teknikariek, ikastetxeek, zentro kolaboratzaileek, gazte-baliabideen arduradunek eta abarrek parte hartzea.

Programa eta proiektuen inplementazio eta ezaugarrien artean ezberdintasunak egon arren, badaude zenbait alderdi komun, eta horiek dira guztientzako oinarriak:

- **Gazteentzako informazioaren garrantzia aintzatestea.** Gazteak, batez ere nerabeak, beren lehen erabaki autonomoak hartzen hasten diren bizitzako garaian daude, eta beren bizitzak gizarteari eta berdinkide-taldeeirekkitzen dizkiete. Erabaki ardurazkoak eta oso ongi oinarrituak hartu ahal izateko, eta gizartean modurik eraginkorrean parte har dezaten, informazio ugari jaso behar dute, kalitatezkoa, fidagarria eta objektiboa; hortaz, gazteentzako informazioa gazte-politiken ardatzetako bat da.
- **Kalitatezko informazioa berdintasunez eskuratzea sustatzea.** Gaur egungo gizartean azkar jaso dezakegu denetariko informazioa, edozein gailu informatikoren bidez. Hala ere, oraindik arazoak ditugu; esaterako, gero eta *fake news*- eta informazio faltsutu gehiago egotea, informazioaren eskuragarritasunean arrakalak maila sozioekonomikoaren arabera, desparekotasuna pertsonen gaitasun eta trebetasunei dagokienez... Gauza guzti horiek kontuan eduki behar dira.
- **Nerabe eta gazteei garatzen laguntzea, gazteentzako informazio-zerbitzuen bidez.** Gazteek laguntza- eta orientabide-beharra izan dezakete, hazi ahala. Horregatik, gazteentzako informazio-zerbitzuek informazio-beharrak estaltzen saiatzen dira gazteentzako informazio-zentro eta -puntu bidez, batez ere IKTak erabiliz. Informazioa deszentralizatu eta gazteen topaguneetara hurbildu behar dute, baita bulegoetatik proiektu berriekin atera ere.
- **Gazteen konpromisoa eta partaidetza sustatzea.** Gazteek gazte-politiketan aktiboki parte hartzea funtsezkoa da proiektuek arrakasta izateko. Gazteei eskainitako zerbitzuen diseinuan, inplementazioan eta ebaluazioan parte hartzeak benetako gazte-ikuspegia erabiltzen laguntzen du, bai eta gazteen behar eta kezkei erantzuna ematen eta berdinkideen bidez gazterian hedapen handiagoa izaten ere.

Guzti horregatik, Gazte berriemaileen programa ezinbesteko tresna da. Izan ere, gazteak inplikatzen ditu gazteentzako informazioaren sorkuntzan, hautapenean eta hedapenean, gazteriaren alorreko esku-hartzearen ardurakide bihurtzen ditu, hainbat mailatan parte hartu eta konprometitzeko aukera ematen die, eta gazteriar informazio praktikoa eta erabilgarria gerturatzen dio, gazteak protagonista eta diseinatzaile diren hedabide eta estrategien bidez.

Beraz, beren helburuen artean gazteentzako informazioa hedatzea duten erakundeek kasuan, gomendagarria da Gazte berriemaileen programa esku hartzeko eta informazioa transmititzeko metodologia gisa ezartzea, bigarren hezkuntzako ikastetxeak eta gazteentzako erreferentziazko beste gune laguntzaile bat aprobetxatuz, hala nola bizikidetzaren eremu pribilegiatuak, esperientzia hezigarriak, taldeko lanak, ikaskuntza, etab. Horrela, gazteek informazioa errazago jaso ahal izanen dute, eta berriemaileak gazteek erabili ohi dituzten beste leku batzuetan ere aritu ahal izanen dira.

Udal txikiak (baita ertainak ere) dituzten zailtasunak direla eta, gomendagarria da Foru Komunitatean toki-entitate txikiagoei parte hartzeko aukera ematen dien programa bateratua ezartzea, gazteentzako informazioa Nafarroa osora transmititzea xede duen tresna honen eragina handitzeko.

Erronka horri aurre egiteko, Nafarroako Gazteriaren Institutuak, 2023-2024ko ikasturtean, programa pilotua jarri zuen martxan. Horren balorazio positiboa egin ondoren, une honetan programan parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten udalerrietara ere aplika daiteke.

Misioa

Nafarroako Gazte berriemaileen programa bateratu eta estandarizatzeko beharrezkoa den egitura sortzea, ahalik eta herri gehienetara hel dadin.

Ikuspegia

Gazteentzako informazioarekin erlazionatutako lana optimizatzea, gazteak ahalduz eta autonomia lortzea erraztuz, informazio-oinarri onarekin erabakiak har ditzaten.

2 ARAUDIA

Gazte Informazioaren Europako Gutunak atarikoan ezartzen duenaren arabera, "demokrazia, giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak errespetatzeak berekin dakar gazteek informazio osoa, objektiboa, fidagarria eta ulergarria eskura izateko eskubidea, haien zalantzak eta beharrak argitze aldera." Eskubide hori onartuta dago, gainera, hainbat dokumentutan: Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean, Haurraren Eskubideen gaineko Hitzarmenean, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteko Europako Hitzarmenean, eta Europako Kontseiluaren 7 (90), CM/Rec(2010)8 eta CM/Rec(2016)7 zenbakiko gomendioetan, gazteentzako informazioari eta aholkularitzari eta gazteek beren eskubideak bete ahal izateari buruzkoetan. Eskubide horretan datza, hain zuzen, Europako Batasunak gazte informazioaren inguruan bere gain duen jarduera".

Hona hemen gazte-informazioan, gazteen lan profesionalean eta Gazte berriemaileen programan eragina duten eta onartuta dauden beste araugintza-dokumentu batzuk:

2.1 ERYICA: GAZTE INFORMAZIOAREN EUROPAKO GUTUNA

Gazte Informazioaren Europako Gutuna da ERYICA (European Youth Information and Counselling Agency) sarearen parte diren gazteentzako informazio-zerbitzuak antolatzen dituzten printzipioen esparrua. ERYICA sarea Europa osoko gazte informazio eta aholkularitzaren profesional guztientzako erreferentziazko deontologia-kodea da.

Gutunaren arabera, gazte-informazioa 9 oinarrizko printzipioen arabera arautu behar da: independentzia, eskuragarritasuna, inklusioa, oinarrizko gazte beharrak, ahalduntzea, gazteen partaidetza, etika, profesionaltasuna eta proaktibotasuna.

2022an, Nafarroa ERYICAn sartu zen, eskubide osoko kide gisa.

2.2 Nafarroako Foru Komunitateko legedia

Gazteriari buruzko 11/2011 Foru Legeak, apirilaren 1ekoak, bere 7. artikuluan ezartzen du Nafarroako toki-entitateek gazteriaren arloko eskumena izanen dutela beren lurralde-eremuan, besteak beste, honako funtzio hau betez: "Gazteentzako informazio-, orientazio-, aholku- eta laguntza-zerbitzuak ematea, herri bakoitzaren beharren arabera".

I. kapituluan, honako hauek jasotzen dira: "Gazteriaren arloko berariazko politikak", 14. artikulua dioen arabera, Nafarroako Gazteriaren Institutuak, besteak beste, hauekin lotutako gazteriaren arloko berariazko politikak garatuko dituela adierazten du: "Gazteentzako informazioa eta aholkularitza, hau da, gazteei orientazioa eta aholkuak modu integralean ematea, horrela aukera gehiago sortuz eta garapen pertsonalerako erabaki libre eta ardurazkoak hartzen lagunduz. Hori guztia, gazteentzako informazio-zerbitzu aitortuen bitartez".

19.3. artikuluan, hezkuntzaren eta gazteriaren arloetako eskumenak dituzten departamentuek koordinazio eta lankidetzako bideak indartuko dituztela eta, taldearen aniztasuna kontuan izanik, neurri hauek hartuko dituztela jasotzen da: "Informazio- eta orientazio-zerbitzuak koordinatu eta sustatzea".

Bestalde, 109/2005 Foru Dekretuak, abuztuaren 22koak, Nafarroako Foru Komunitateko Gazteentzako Informazio Zerbitzuen Sarea sortu eta arautzen duenak, Gazteentzako Dokumentazio eta Informazio zentroak, besteak beste, honako funtzio hau duela ezartzen du: "Nafarroako Foru Komunitateko Gazteentzako Informazio Zerbitzuen Sarea sendotzea, bultzatzea eta koordinatzea". Gainera, 9. artikulua arabera, ofizialki onartutako Gazteentzako Informazio Zerbitzuek "bulegoak izan ditzakete lokal nagusiaz gainera". Horri esker, ikasketa-zentroetan eta gazteentzako bestelako lekuetan gazte informazioko korrespontsaliak ezar daitezke.

242/2023 Foru Dekretuak, azaroaren 15ekoak, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren estatutuak onesten dituenak, 18 e) artikuluan adierazten du organismoaren lan-esparruetako bat "Nafarroako Gazteentzako Informazio Sarea eta informaziorako eta parte hartzeko beste programa batzuk kudeatzea" izanen dela.

3 GAZTE BERRIEMAILEEN PROGRAMA

3.1 ZERTAN DATZA PROGRAMA?

Programak Nafarroa osoan zehar hedatuko den eta batez ere nerabeek zein adin gutxiko gazteek (14 eta 18 urte artekoak, gehienbat) parte hartuko duten informazio-sarea sortu nahi du berdinkideen artean (*peer to peer*). Adin-tarte hori interesgarria da, barruan dauden pertsonak helduen munduan sartzear baitaude. Ondorioz, horretan laguntzeko baliabideak ezagutzea ezinbestekoa da. Hala ere, programa gaur egun gazteriari dagokion adin-tarte osoarentzat dago erabilgarri, hau da, 14 eta 30 urte arteko pertsonentzat.

Programan parte hartuz gero, sozialki aktibatzeko aukera izanen dute, beren hurkoekiko zerbitzu-lanen bidez. Horrek guztiak eragin positiboak besterik ez ditu izanen parte-hartzaileengan: autoestimua sendotzea, beren autonomia pertsonala sustatzea eta gizartearen parte izatearen sentipena garatzea, besteak beste.

Horri funtsezko beste osagarri bat gehitzen zaio, programa informazio- eta aholkularitza-zerbitzuen ezagutzarako sarbide bilakatzeko asmoa baitago; zerbitzu horiek behin ezagutuz gero, beren gaztaro osoan erabili ahal izanen dituzte, baita helduaroan ere. Azken batean, gazteek behar dituztenean zerbitzu eta baliabideen ezagutza gizarteratzean datza.

3.2 PROGRAMAREN ARDATZAK

Gazte berriemaileen programak hiru funtsezko ardatz ditu:

INFORMAZIOA

Aukera-berdintasunarekin iritziak emateko eta erabaki garrantzitsuak hartu ahal izateko tresna gisa. Hori egiazko eta kalitate oneko informazioaren bidez lortzen da; programan parte hartzen duten pertsonen informazio hori izanen dute eskura, eta hura bilatzen irakatsiko zaie. Aldi berean, berdinkideen teknika erabiliko da, informazioa gazte gehiagok eskura dezaten, modu eraginkorragoan.

PARTAIDETZA

Inplikaturako agente guztiena (gazteak, gazte berriemaileak, boluntarioak, arduradunak, toki-entitateak, Nafarroako Gazteriaren Institutua, etab.), informazioa eta atzeraelikadura egiazkoak eta eraginkorrak izan daitezten. Berriemaileen partaidetzak beren prestakuntza zibikoan izanen du eragina, eta tresna eta trebetasun sozialak emanen dizkie.

KOORDINAZIOA

Programan parte hartzen duten guztien artean, emaitzarik onenak lortu ahal izateko eta ahalik eta gazteen kopuru handienari aukera-berdintasunarekin laguntzeko.

3.3 ESKU HARTZEKO ESPARRUAK

Programa hainbat esku-hartze esparrutan gara daiteke. Ildo horretan, proiektua ikastetxeen esparruan gauzatuko da batez ere, baina azpimarratu nahi da beste mota batzuetako zentro, zerbitzu edo gune kolaboratzaile batzuetan ezartzeko aukera aztertzen ari dela, gazte berriemaileak horietan ere aritu daitezten:

- Gehienbat 14 eta 18 urte arteko ikasleak dauden ikastetxeak edo prestakuntza-zentroak.
- Gehienbat 14 eta 30 urteko gazteak dauden ikasle-egoitzak.

- Gazte-eremuak, hau da, gazteriarekin erlazionatutako programak egiten diren tokiak.
- Izaera ofizialeko gazte-elkarteen egoitzak.
- Gehienbat 14 eta 30 urte arteko gazteei arreta eskaintzen dieten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak.
- Denboran zehar egituratu eta mantendutako beste gune edo kolektibo informalak. Horietan, parte hartzen duten gazteentzako informazio-zerbitzuaren eta Nafarroako Gazteriaren Institutuaren arteko balorazio bateratuan programaren ezarpenaren aurreikuspen positiboa egin beharko da.

3.4. HELBURUAK

Gazteentzako informazio-zerbitzuak hobetzea:

- Nafarroan Foru Komunitate osoko gazteei beren intereseko informazioa helarazteko gazte berriemaielen sarea sortzea.
- Udalen, gazteentzako informazio zerbitzuen, gune kolaboratzaileen eta Nafarroako Gazteriaren Institutuaren arteko lan-eremu komuna sortzea, programa hau eta etorkizunean ezar daitezkeen beste programa batzuk koordinatzeko.

Gazteentzako informazioaren esparruan gazteriaren partaidetza sustatzea:

- Nafarroa osoan, berdinkideen teknikaren bidez (*peer to peer*), elkarrekin informazioa partekatzen duten gazteen sarea ezartzea.
- Programan parte hartzen duten gazteen lana saritzea, ikastaldiak eskainiz.
- Nafarroako gazteei zuzendutako ekimenak edo programak garatzeko gazte aktiboen talde kritikoa sortzea.
- Aisialdi hezitzailea eta balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzea.
- Gazteriaren artean gazteei zuzendutako zerbitzu eta programei buruzko ezagutza sustatzea, behar edo nahi dutenean erabil ditzaten; batez ere, gazteentzako informazio-eta aholkularitza-lanak garatzen dituzten kasuan.
- Esparru formaletik kanpo programan parte hartzen duten gazte, profesional eta kolaboratzaileentzako prestakuntza gaitzea.

3.5. INPLIKATUTAKO AGENTEAK ETA HAIEN FUNTZIOAK

Programa hau martxan jartzeko, lan sinergikoa egin behar dute lau agentek:

- Nafarroako Gazteriaren Institutua.
- Toki-entitateak.
- Gazteentzako informazio-zerbitzuak.
- Gune kolaboratzaileak.

Hainbat esparrutan jarduten duten erakundeak dira eta, programak arrakasta izateko, ezinbestekoa da beren artean elkarlanean aritzea. Hona hemen agente horietako bakoitzak programan betetzen duen funtzioa:

3.5.1 Nafarroako Gazteriaren Institutua

Foru Komunitateko gazte-arloko profesionalak koordinatzen ditu, eta programa honen esparruan lurralde osoan egiten diren ekintzei koherentzia ematen die. Nafarroako gazteentzako informazioa koordinatzen duen zentroa den aldetik, programa antolatu duen erakundea da.

FUNTZIOAK

- Programaren koordinazio orokorra: deialdiak egitea, administrazio-espeditueak kudeatzea, etab.
- Aurrekontua aurkeztea, egikaritu dadin.
- Berriemaileen sarien ordainketa eta kudeaketaren ardura bere gain hartzea.
- Protokoloak, tresnak eta programarekin loturako beste dokumentazio batzuk (jarraipen- eta ebaluazio-orriak, irizpideak, programaren irudia, diplomak, etab.) sortzea.
- Inplikaturako erakundeekiko (udalak, informazio-zerbitzuak eta gune kolaboratzaileak) koordinazio-eremuak eta -tresnak sortzea.
- Programan parte hartzen duten agente guztien hasierako prestakuntza sortu eta ematea, baita agente horien lana garatzen lagun dezakeen beste edozein prestakuntza ere.
- Berriemaile-sareari informazio-lehentasunak iradokitzea, Nafarroako Gobernuan edo Europagan egiten diren gazteentzako kanpainekin bat etorriz.
- Berriemaile guztientzako ekintza komunak (bisitak, topaketak, etab.) antolakuntza, koordinazioa eta finantzaketa.
- Nazio eta Europako mailan berriemaileen sarea ordezkatzeko lanak bere gain hartzea.
- Inplikaturako profesionalen ziurtagirien bidez lan-orduak aintzatestea.
- Berriemaileei materialak ematea.
- Marka-irudia eta merchandisinga sortzea.
- Programari buruzko ebaluazio-protokoloen eta datuen erregistroaren sistematizazioa.

3.5.2 Toki-entitateak

Toki-entitatea dagokion herrian programako partaidetza koordinatzeaz arduratzen da. Udalak edo mankomunitateak izan daitezke, gazteriaren alorreko profesionalen bidez.

FUNTZIOAK

- Udalerria Nafarroako Gazteriaren Institutuak programan parte hartzeko egiten duen deialdiari atxikitzea.
- Berriemaileei, beharrezkoa denean, sariak emateko proposamena egitea, gazteentzako informazio-bulego edo -puntuarekin eta erreferentziazko zentro kolaboratzailearekin koordinatuz.
- Inskripzioa eta datuen kudeaketa.
- Bere eskumen-eremuan gazteentzako berriazko kanpainak, prestakuntza-moduluak, jardunaldi informatzaileak, etab. egitea.

3.5.3 Gazteentzako informazio-zerbitzuak

Nafarroako gazteentzako Informazio Sarean inskribatutako gazte informaziorako bulegoa edo gunea izan daiteke.

FUNTZIOAK

- Programa lurraldean hedatzea eta herriko gazte berriemaileen taldea sortzea.
- Berriemaileei eremu kolaboratzaileetan eta beren sareetan hedatzeko informazioa ematea.
- Zerbitzu horien eraginpean dauden gazte berriemaileentzako informazio-lehentasunak ezartzea.
- Berriemaileekiko harremana eta koordinazioa.
- Gazte berriemaileen lanaren jarraipena.
- Programaren dinamizazioa gazte-eremuan inplikaturako agenteekin.
- Lurraldeko berriemaile eta gazteek diseinatutako jardueri laguntza ematea eta proposamen berriak egitea.
- Berriemaileen lana ebaluatzea eta, ebaluazioaren arabera, sariak emateko proposamena egitea.

3.5.4 Eremu kolaboratzaileak

Dokumentu honetako 3.3 puntuan jasotako programari atxikitako zentroak izanen dira.

FUNTZIOAK

- Beren eremuetan berriemaileen programari buruzko informazioa hedatzea.
- Eremu kolaboratzaileak programan parte hartuko duten gazteak hautatzea eta dagokion gazteentzako informazio-zerbitzuari komunikazioa bidaltzea.
- Berriemaileen informazio-panelerako gunea gaitzea.
- Berriemaileak egotea beharrezkoa den prestakuntza-jarduera, bilera edo ekitaldietara bertaratzea erraztea.
- Zentro edo eremu kolaboratzaileko pertsona bat bere eskumen-eremuan programaren jarraipena egiteko izendatzea.
- Zentroaren esparrutik berriemaileentzako informazio-lehentasunak ezartzea.
- Gazteria-arlokoarduradunei ikastetxerako eta berriemaileen programa gauzatzeko eremuetarako sarbidea erraztea.
- Proposatutako jardueretarako ordutegiak ezartzea.

4.2 PROFILA: NOR IZAN DAITEKE BERRIEMAILE?



- Gehienbat, 14 eta 18 urte arteko gazteak.
- Programan parte hartzeko nahia izan behar dute, eta ikastetxe batean ikasi. Bestela, elkarte, egoitza edo talde baten parte diren gazte aktiboak izanen dira.
- Gazte berriemaile gisa dituzten zereginetarako, aldizka ematen zaien informazioa biltzeko eta antolatzen diren tailer, jardunaldi eta topaketetara joateko behar adina denbora izan behar dute.
- Inplikatu egin behar dute, pentsamendu kritikoz eta gazte berriemaileen programako zereginetan aktiboki parte hartzeko eta mugitzeko gaitasunez.
- Gazte berriemaileen programan sinetsi behar dute, eta gazteentzako eremu zabalagoa eta parte-hartezkoa sortzeko motibazioa eta gogoia izan behar dituzte.

Hala ere, herriko errealitate zehatza gailenduko da berriemaileen profila zehazterakoan, eta programa eta haren edozein alderdi gazteen beharrei eta erabilgarri dauden baliabide eta aukerei egokituko zaie.

4.3 FUNTZIOAK: ZER EGIN DEZAKETE BERRIEMAILEEK?

Berriemaileen zeregina bi noranzkoko da, hau da, gazteriaz arduratzen den administraziotik gazteengana eta alderantziz.

Hona hemen berriemaileek zenbait esparrutan bete ditzaketen funtzioen zerrenda orientagarria. Jakina, funtzio posibleak entitate eta lurralde bakoitzaren errealitateari egokitu behar zaizkio, edo, bestela, berriak sortu edo dagoeneko existitzen direnak aldatu egin beharko dira.

Gazteentzako informazioa

- Astero gazteentzako informazio-zerbitzuek emandako informazioa biltzea eta hedatzea.
- Gazteentzako informazioa egokia, ulergarria, erabilgarria eta gazteentzako irigarria izaten laguntzea.
- Gazteentzako informazioa sortu eta berdinkideen artean hedatzea.
- Eremu kolaboratzaileetako informazio-oholak eguneratu, ordenatu eta zaintzea.

- Sare sozialak kudeatzen eta kanpainak eta ikus-entzunezko baliabideak diseinatzen laguntzea.
- Gazteei gazteentzako informazio zerbitzuetan (formaletan) sartzea erraztea.
- Zalantzak edo eskaerak jasotzea eta horiez arduratzen diren programako langileei transmititzea.
- Sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpainak sortzea eta horietan parte hartzea.
- Beren berdinkideek gazteentzako eremua, tokiko edo lurraldeko gazteentzako informazio-zerbitzua eta erabilgarri dituzten baliabideak ezagutzen dituztela ziurtatzeko beharrezkoak diren hedapen-baliabideak sortzea eta dagoeneko existitzen direnei laguntzea.
- Nafarroako Gazteriaren Institutuak edo gazteentzako informazio-zerbitzuak antolatutako gazte berriemaileentzako bilera, prestakuntza-tailer eta topaketetara joatea.

Gazte-partaidetza

- Programa hobetzeko ideiak proposatzea, beren edo beste gazteen izenean.
- Zinegotzigoaren/gazteentzako zerbitzuaren prozesuetan parte hartzea.
- Partaidetza-prozesuak hedatzea eta beste gazteak parte hartzera gonbidatzea.
- Partaidetza-prozesuak antolatzen eta diseinatzen aritzea eta horietan laguntza ematea.
- Jarduera, programa eta proiektuen zehaztaperen- eta garapen-prozesuan parte hartzea.
- Gazteekin egiten diren jarduera eta proiektuen dinamizazioan aktiboki laguntzea.
- Gazteriaren begirale aritzea.

Ebaluazioa

- Kanpaina, jarduera, proiektu eta programen ebaluazioa, besteak beste.
- Gazteen artean ebaluazio-tresnak hedatzea.
- Prozesuak eta esku-hartzeak ebaluatzeko mekanismoak eta itemak proposatzea eta horiek diseinatzen laguntzea.

4.4 BERRIEMAILEEN TOPAKETAK

Topaketak berriemaileen programaren barruan egin ohi diren jardueretako bat dira. Gazte-taldearentzako eta programako langile arduradun eta dinamizatzaileentzako topaketa-, kohesio-, prestakuntza- eta antolakuntza-eremu gisa funtzionatzen dute.

Egun bat edo gehiagoko jarduerak dira; bertan, lurralde bat edo gehiagoko gazteek (tokiko topaketa, eremuko topaketa, estatuko topaketa, etab.) har dezakete parte, eta haientzako prestakuntza-, aisialdi- eta koordinazio-ekintzak daude. Programaren hasieran (ikasturtea planifikatu eta koordinatzeko), programaren erdian (taldearen kohesioa

hobetzeko, jarraipena egiteko eta hurrengo proiektuak planifikatzeko) edo programaren bukaeran (adio esateko, urtean zehar eginiko lana ebaluatzeko eta hurrengo ikasturtea planifikatzeko) egin daitezke.

Hasiera batean, bi topaketa planifikatzen dira:

- **Hasierako topaketa:** berriemaile berriak eta inplikaturako profesionalak gonbidatzeko jardunaldia egitea aurreikusten da. Beren esperientzia azalduko duten berriemaile ohi batzuk egonen dira. Gainera, berriemaileei beren zereginetan lagunduko dien prestakuntza-tailerren bat emanen da.
- **Azken topaketa:** berriemaile izan diren pertsonentzako asteburuko topaketa egitea aurreikusten da. Bertan, prestakuntzarako, gogoeta egiteko eta aisialdiko eremuak konbinatuko dira. Programa garatzen lagundu duten profesionalak asteburu horren parte batera gonbidatzeko aukeraz hausnartuko da.

5 METODOLOGIA

Gazteentzako informazio-zerbitzua (gazte informaziorako bulegoa zein gunera izanik) duten toki-entitateek eta 3.3 atalean zehaztutako zentro kolaboratzaileetako batzuek programan parte hartzeko aukera izanen dute.

Horretarako, irailean, gutxi gorabehera, programaren oinarriak argitaratuko dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Herri interesdunek Nafarroako Gazteriaren Institutuari eskatu beharko diote programari atxikitzeko, gazte berriemaileak izanen dituzten zentro kolaboratzaileen eta gazteentzako informazio-zerbitzuaren berri emanez.

Bestalde, 2024-2025eko ikasturtean zehar berriemaile izanen diren gazte-bikoteen izenak komunikatu beharko dituzte.

Parte hartzaile guztiek prestakuntza-oinarri eta informazio komuna izan ditzaten, profesionali zein berriemaileei zuzendutako tailerrak egingen dira. Horietan, gazte berriemaileen programan lan egiteko moduari buruzko oinarrizko eduki bateratuak irakatsiko dira.

Peer teaching, peer-to-peer **metodologia: berdinkideen arteko ikaskuntza** *Peer-to-peer* edo berdinkideen arteko ikaskuntza hezkuntza-esparru formalean zein informalean (hori da berriemaileen eta gazteriaren esparruan egiten den lanaren kasua) ematen den berdinkideen arteko elkarrekintzaren balioan ardaztutako ikaskuntza kooperatibo mota bat da. Horren bidez, gazteek prozesuan hartzen dute parte eta nolabaiteko ardura hartzen dute beren gain, programaren jarraitutasunerako funtsezkoak eta garrantzitsuak diren ikaskuntzak sustatzeko.

Aurkikuntzaren metodologia

Pertsonaren esperientzia erabiltzen du ikaskuntza-iturri gisa. Berriemaileek modu aktiboan eta konstruktiboan eskuratzen dute informazioa.

Sareko lana

Berriemaileen programan egiten den sareko lana estrategia metodologikotzat har daiteke, jardueren parte handi bat beste agente batzuekin lankidetzan aritzean eta koordinatzean datza eta (zentro kolaboratzaileak, lurraldeko programaren gazte hartzaileak, Nafarroako Gazteriaren Institutua, beste agente eta zerbitzu instituzional batzuk, kanpoko entitateak, etab.). Bestalde, ikaskuntza-iturri aipagarria da, elkarrekintza horietarako behar diren eta berekin ekartzen dituzten gaitasun eta trebetasunengatik.

Langile politikoekiko komunikazioa

Programari buruzko informazioa emateko eta hari laguntzeko, toki-entitateak eta Nafarroako Gobernua barne hartuz. Bilera horietan toki-entitateen eta Nafarroako Gazteriaren Institutuaren ardurak, partaidetza eta funtzioak zehazten dira.

Bilerak zentro kolaboratzaileetako langileekin

Informatzeko bilerak, berriemaileen programa garatuko den zentroetako langileekin.

Programa ezagutzera emateko eta hari buruzko komunikazioak hedatzeko kanalak

Nafarroako Gazteriaren Institutuak, zentro koordinatzaile gisa, parte hartzen duten agenteen bidez programa betetzeko beharrezkoak diren tresnak eta informazioa eskuratzeko gune birtuala garatu eta eguneratuta mantenduko du.

Gazte berriemaileentzako prestakuntza

- Online-topaketa (1 ordu, azaroan). Honako eduki hauekin:
 - Aurkezpen instituzionala.
 - Nafarroako Gazteriaren Institutuaren kanpainak, gazteei zuzendutako programak edo zerbitzuak (topaketak, gazte-txarteleko jarduerak, etab.), aisialdi hezitzailea eta balioen irakaskuntza.
 - Programaren azalpen orokorra.
 - Funtzioak.
 - Zereginak.
 - Informazio-lanak eremu kolaboratzailean.
 - Informazio-panelaren kudeaketa.
 - Eremu kolaboratzailearen gazteentzako informaziorako sare sozialen kudeaketa.
 - Eskaerak bideratzea.
 - Egutegia (apirilean, gazteentzako informazioa; martxoan, kanpamentuak; martxoaren 8a, etab.).
 - Ebaluazioa eta sariak.
 - Galderak eta iradokizunak.
 - Prestakuntza gazteentzako informazio-zerbitzuan (1 ordu, azaroan).
 - Zerbitzuaren ezagutza (panelak, informazio-zerbitzuak, aholkularitzak).
 - Zerbitzua astero bisitatzeko ordutegien hitzarmena.
 - Tresnak (fotokopiagailua, kontsultarako ordenagailuak).


Adierazle kuantitatiboak:

- Atxikita dauden eta programa burutu duten zentro kolaboratzaileen kopurua.
- Inskribatuta dauden eta programa burutu duten berriemaileen kopurua, sexuaren arabera.

Adierazle kualitatiboak:

- Zentro kolaboratzaileen laguntza eta koordinazioarekiko poztasun-maila.
- Berriemaileen poztasun-maila.
- Inplikaturako agenteek eginiko hobekuntza-proposamenak.

8 EGUTEGIA



1. ERANSKINA

NAFARROAKO GAZTE BERRIEMAILEN PROGRAMARAKO IZENA EMATEA

_____ (e)ko Udalak, 2024/2025 ikasturteko Nafarroako Gazte berriemaileen programaren oinarriak aintzat hartuta, programan parte hartzeko eskaera aurkezten du.

Gazte-informaziorako bulego edo gunearen datuak			
Izena:		IFZ:	
Helbidea:		Herria:	
PK:		Telefono-zenbakiak:	
Helbide elektronikoa:			
Programaren koordinatzailea GIB/GIGan:			

Programara honako zentro kolaboratzaile hauek atxikitzen dira (bete tokiko zentro kolaboratzaileak programara atxikitzen diren adina aldiz):

1. zentro kolaboratzailearen datuak			
Zentroaren izena			
Helbidea:		Herria:	
PK:		Telefono-zenbakiak:	
Helbide elektronikoa:			
Programaren koordinatzailea zentroan:			

2. zentro kolaboratzailearen datuak			
Zentroaren izena			
Helbidea:		Herria:	
PK:		Telefono-zenbakiak:	
Helbide elektronikoa:			
Programaren koordinatzailea zentroan:			

(e)n _____, 2024ko (a)ren (e)(a)n

Gazte-informaziorako bulego edo guneaz
ardurutzen den PRESIDENTEA EDO ALKATEA
(zigilua)

Sinadura: _____

2. ERANSKINA

NAFARROAKO GAZTE BERRIEMAILEEN PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN BERRIEMAILEEN DATUAK

Berriemailearen datu pertsonalak			
Izen-abizenak:			
NAN/AIZ		Jaiotze-data:	
Helbidea:			
Herria:		PK:	
Helbide elektronikoa:		Telefono-zenbakia:	
Ikastetxea:			
<input type="checkbox"/> BAIMENA EMATEN DIOT Nafarroako Gazteriaren Institutuari proiektuan zehar egiten diren argazki-irudiak eta bideo-grabaketak modu eskusiboan eta indarrean dagoen araudiari jarraikiz erabiltzeko, proiektuari buruzko informazioa hedatzeko eta merkataritza-xederik gabe.			
<input type="checkbox"/> BAIMENA EMATEN DIOT Nafarroako Gazteriaren Institutuari eman diodan telefono-zenbakia barneko komunikazio-taldeetan sartzeko, berriemaile gisa esleitu dizkidaten zereginak hobeto koordinatzeko.			

Baimena (adingabeentzat)	
Nik, _____, _____ jaunak/andreak, NANarekin eta parte-hartzailearen ama/aita/legezko tutore gisa, baimena ematen diot nire seme edo alabari berriemaileen programan parte hartzeko.	
<input type="checkbox"/> BAIMENA EMATEN DIOT Nafarroako gazteentzako Informazio Sareari proiektuan zehar egiten diren argazki-irudiak eta bideo-grabaketak modu eskusiboan eta indarrean dagoen araudiari jarraikiz erabiltzeko, proiektuari buruzko informazioa hedatzeko eta merkataritza-xederik gabe.	
<input type="checkbox"/> BAIMENA EMATEN DIOT Nafarroako gazteentzako Informazio Sareari eman diodan telefono-zenbakia barneko komunikazio-taldeetan sartzeko, berriemaile gisa esleitu dizkidaten zereginak hobeto koordinatzeko.	

Berriemailearen edo amaren / aitaren / legezko tutorearen sinadura
(e)n _____, 2024ko (a)ren (e)(a)n

<p>Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa: Arduraduna: Nafarroako Gazteriaren Institutua. Helburua: Gazte berriemaileen programan inskribatzen diren pertsonen datuak kudeatzea. Legitimazioa: Botere publikoak edo interes publikoa gauzatzeko beharrezkoa den tratamendua, 2024/2025 ikasturteko Nafarroako Gazte berriemaileen programaren programa pilotuaren oinarrietan ezarritakoari jarraikiz. Hartzaileak: Ez zaie daturik hirugarrenei emango, baimena ematen bada edo araudiak gaitzen badu (nahiz eta baimenik ez eman) salbu. Eskubideak: Datuak atzitu, zuzendu eta ezabatzeko eta datuen tratamendua mugatzeko eskubideak. Informazio gehigarria: Informazio gehigarria webgune honetan kontsulta dezakezu: https://www.juventudnavarra.es/</p>
--

3. ERANSKINA

NAFARROAKO GAZTE BERRIEMAILEEK IKASTURTEAN EGIN BEHARREKO LANEN EGUTEGI ORIENTATIBOA, NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUAK PROPOSATUAK

URRIA
<ul style="list-style-type: none"> Bete eskaera Prestakuntza eta bisita Gazte informaziorako bulegora edo gunera
AZAROA
<ul style="list-style-type: none"> Nafarroako berriemaileen hasierako topaketa Eskola Indarkeriaren eta Jazarpenaren aurkako Nazioarteko Eguna Haurren Munduko Eguna Emakumeen aurkako Indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna
ABENDUA
<ul style="list-style-type: none"> Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna
URTARRILA
<ul style="list-style-type: none"> Europako Bitartekaritzaren Eguna Holokaustoaren Biktimak Oroitzeko Nazioarteko Eguna Datuak Babesteko Europako Eguna Indarkeriarik ezaren eta bakearen aldeko eskola eguna
OTSAILA
<ul style="list-style-type: none"> Neska eta Emakume Zientzialarien Nazioarteko Eguna
MARTXOA
<ul style="list-style-type: none"> Bazterkeria Zero Eguna Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna Arraza-bereizkeria Ezabatze Nazioarteko Eguna RaPoesía
APIRILA
<ul style="list-style-type: none"> Gazteentzako informazioaren Europako eguna Udako kanpamentuak
MAIATZA
<ul style="list-style-type: none"> Nafarroako berriemaileen azken topaketa Birziklapenaren Mundu eguna
EKAINA
<ul style="list-style-type: none"> Diplomen entrega.

4. ERANSKINA

BERRIEMAILEN LANEN JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-FITXA (programaren 7. puntuaren arabera)

GAZTEENTZAKO INFORMAZIO-ZERBITZUAK BETE BEHARREKOA

Fitxa honetan gazte berriemaile bakoitzari buruzko datuak jasoko dira, zerbitzura informazioa biltzeko aurrez ezarrita dituen bisita-egun bakoitzeko.

Berriemailearen izena:		
Berriemailea dagoen zentro kolaboratzailea:		
Data	Bertaratzea:	Oharrak
		Hasierako prestakuntzara joan da: Bai/Ez
Data	Bertaratzea:	Oharrak
		Bisitak eremu kolaboratzailean: Bai/Ez
Data	Bertaratzea:	Oharrak
		Azken memoriaren entrega
Data	Bertaratzea:	Oharrak
Data	Bertaratzea:	Oharrak
Data	Bertaratzea:	Oharrak
Data	Bertaratzea:	Oharrak

5. ERANSKINA

NAFARROAKO GAZTE BERRIEMAILEN PROGRAMAREN BITARTEKO EBALUAZIOA

- Datu horiek Nafarroako Gazteriaren Institutuak ditu, eta
- Gazte-informaziorako bulegoak edo guneak eman beharko ditu.

Programara atxikitako toki-entitateen kopurua.					
Atxiki ezin diren toki-entitateen kopurua (adierazi arrazoia).					
Programara atxikitako zentro kolaboratzaileen kopurua.					
Atxiki ezin diren zentro kolaboratzaileen kopurua (adierazi arrazoia).					
Inskribatutako berriemaileen kopurua, sexuaren arabera.	Emakumea	Gizonezkoa		Ez-binarioa	
Berriemaileen kopurua hasierako prestakuntza birtualean. Sexu, adin eta bizilekuaren arabera berezita.	Herria	Adina	Emakumea	Gizonezkoa	Ez-binarioa
Gazte-informaziorako bulego edo gunearen hasierako prestakuntzan parte hartzen duten berriemaileen kopurua. Sexu, adin eta bizilekuaren arabera berezita.	Herria	Adina	Emakumea	Gizonezkoa	Ez-binarioa
Prestakuntzan parte hartu duten toki-entitate eta informazio-zerbitzuetako pertsonen kopurua. Sexu eta bizilekuaren arabera berezita.	Herria	Emakumea	Gizonezkoa	Ez-binarioa	
Prestakuntzan parte hartu duten eremu kolaboratzaileetako ordezkarien kopurua. Sexu eta bizilekuaren arabera berezita.	Herria	Emakumea	Gizonezkoa	Ez-binarioa	
Informazio zerbitzuetara astero egiten diren bisiten % 75ean gutxienez parte hartu izana.	Herria	Bai		Ez	
Toki entitateen eta gazteentzako informazio zerbitzuen poztasun-maila programaren bilakaerari dagokionez.	Herria	Puntuazioa, 1etik 5era			
Berriemaileen poztasun-maila programaren bilakaerari dagokionez.	Herria	Puntuazioa, 1etik 5era			
Zentro kolaboratzaileen poztasun-maila programaren bilakaerari dagokionez.	Puntuazioa, 1etik 5era				
Eremu birtualaren sorkuntza.	Bai/Ez				

NAFARROAKO GAZTE BERRIEMAILEN PROGRAMAREN BITARTEKO EBALUAZIOARI BURUZKO GALDEKETA

1. GAZTEENTZAKO INFORMAZIO-ZERBITZUAK BETE BEHARREKOA

- Herria:
- Gazte-informaziorako bulego edo gunearen hasierako prestakuntzan parte hartu duten berriemaileen kopurua:

ADINA	EMAKUMEA	GIZONEZKOA	EZ-BINARIOA

- Baloratu, 1etik 5era, Gazte berriemaileen programaren honako alderdi hauek (1 "gaizki", 2 "erdipurdikoa", 3 "ez ona, ez txarra", 4 "ongi" eta 5 "oso ongi").



GALDERA	1	2	3	4	5
Nafarroako Gazteriaren Institutuaren hasierako prestakuntza					
Argitasuna bete beharreko zereginen dagokienez					
Nafarroako Gazteriaren Institutuarekiko koordinazioa					
Programaren bilakaeraren balorazio orokorra zuen herrian					

- Utzi hemen nahi duzun iruzkina:

Oharra: Lineako inprimakia beteko da

2. BERRIEMAILEEK BETE BEHARREKOA

- Herria:
- Baloratu, 1etik 5era, Gazte berriemaileen programaren honako alderdi hauek (1 "gaizki", 2 "erdipurdikoa", 3 "ez ona, ez txarra", 4 "ongi" eta 5 "oso ongi").



GALDERA	1	2	3	4	5
Prestakuntza birtuala					
Zerbitzuari buruzko hasierako prestakuntza					
Gazte informaziorako bulegoko edo guneko profesionalen prestasuna					
Ikastetxeaz arduratzen den pertsonaren prestasuna					
Berriemaile-zereginetikiko poztasun-maila					

- Utzi hemen nahi duzun iruzkina:

Oharra: Lineako inprimakia beteko da

3. ZENTRO KOLABORATZAILEEK BETE BEHARREKOA

- Herria:
- Baloratu, 1etik 5era, Gazte berriemaileen programaren honako alderdi hauek (1 "gaizki", 2 "erdipurdikoa", 3 "ez ona, ez txarra", 4 "ongi" eta 5 "oso ongi").



GALDERA	1	2	3	4	5
Prestakuntza birtuala					
Gazte-informaziorako bulegoko edo guneko profesionalakiko koordinazioa					
Programaren bilakaerarekiko poztasuna, oro har					

- Utzi hemen nahi duzun iruzkina:

Oharra: Lineako inprimakia beteko da

6. ERANSKINA

NAFARROAKO GAZTE BERRIEMAILEN PROGRAMAREN AZKEN EBALUAZIOA

Programa bukatu duten atxikitako zentroen kopurua					
Programa bukatu duten berriemaileen kopurua. Sexu, adin eta bizilekuaren arabera bereizita	Herria	Adina	Emakumea	Gizonezkoa	Ez-binarioa
Aurkeztutako azken memorien kopurua					
Gazte-informaziorako bulego eta guneen poztasun-maila	1etik 5erako puntuazioa				
Zentro kolaboratzaileen poztasun-maila	1etik 5erako puntuazioa				
Berriemaileen poztasun-maila	1etik 5erako puntuazioa				
Zentro kolaboratzaileek proposatutako hobekuntzak					
Gazte berriemaileek proposatutako hobekuntzak					
Gazteentzako informazio-zerbitzuek proposatutako hobekuntzak					

Oharra: Lineako inprimakia beteko da

NAFARROAKO GAZTE BERRIEMAILEN PROGRAMAREN AZKEN EBALUAZIOARI BURUZKO GALDEKETA

1. GAZTEENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUAK BETE BEHARREKOA

- Herria:
- Programa burutu duten zentro kolaboratzaileen kopurua:
- Aurkeztutako azken memorien kopurua:
- Programa burutu duten berriemaileen kopurua:

ADINA	EMAKUMEA	GIZONEZKOA	EZ-BINARIOA

- Baloratu, 1etik 5era, Gazte berriemaileen programaren honako alderdi hauek (1 "gaizki", 2 "erdipurdikoa", 3 "ez ona, ez txarra", 4 "ongi" eta 5 "oso ongi").



GALDERA	1	2	3	4	5
Berriemaileen konpromiso-maila					
Nafarroako Gazteriaren Institutuarekiko koordinazioa					
Gazte berriemaileen programaren balorazio orokorra zuen herrian					

- Programa beste herri batzuetan martxan jartzea gomendatuko zenuke?
- Utzi hemen programa hobetzen lagun dezakeen edozein iruzkin:

Oharra: Lineako inprimakia beteko da

2. BERRIEMAILEEK BETE BEHARREKOA

- Herria:
- Baloratu, 1etik 5era, Gazte berriemaileen programaren honako alderdi hauek (1 "gaizki", 2 "erdipurdikoa", 3 "ez ona, ez txarra", 4 "ongi" eta 5 "oso ongi").



GALDERA	1	2	3	4	5
Berriemaile gisa burututako lanak					
Gazte informaziorako bulegoko edo guneko profesionalen prestasuna					
Esperientziaren balorazioa					

- Programa beste herri batzuetan martxan jartzea gomendatuko zenuke?
- Utzi hemen programa hobetzen lagun dezakeen edozein iruzkin:

Oharra: Lineako inprimakia beteko da

3. ZENTRO KOLABORATZAILEEK BETE BEHARREKOA

- Herria:
- Baloratu, 1etik 5era, Gazte berriemaileen programaren honako alderdi hauek (1 "gaizki", 2 "erdipurdikoa", 3 "ez ona, ez txarra", 4 "ongi" eta 5 "oso ongi").



GALDERA	1	2	3	4	5
Zentroko berriemaileekiko koordinazioa					
Gazte-informaziorako bulegoko edo guneko profesionalakiko koordinazioa					
Programaren bilakaerarekiko poztasuna, oro har					

- Programa beste herri batzuetan martxan jartzea gomendatuko zenuke?
- Utzi hemen programa hobetzen lagun dezakeen edozein iruzkin:

Oharra: Lineako inprimakia beteko da

7. ERANSKINA

NAFARROAKO GAZTE BERRIEMAILEN AZKEN MEMORIA

Maiatzaren bukaeran, berriemaile-bikote bakoitzak programaren zazpi hilabeteetan zehar egin duten lana islatzen duen memoria entregatu beharko du.

Hona hemen memoria egiteko bete behar den taula:

DATU OROKORRAK	
Berriemaileen identifikazioa	
Dauden zentro kolaboratzailea	
JUSTIFIKAZIOA	
Berriemaile izateko arrazoiak	
BURUTUTAKO LAN-PLANA	
Gazte informaziorako bulego edo gunerako bisita-egunak eta -ordutegia	
Zentroan informazioa hedatzeko erabilitako orduak	
Informazioa partekatzen den bideak	
Kideen artean arrakasta gehien izan duten informazioak	
Kideen artean arrakasta gutxien izan duten informazioak	
Berriemaile-lanak egiteko izan dituzten zailtasunak	
Berriemaile - esperientziaren balorazio orokorra	

8. ERANSKINA

Kaixo:

_____ (e)ko Gazte Informaziorako bulego edo gunetik idazten dizugu, gazte berriemaile gisa egin duzun lana arrakastatsua izan dela jakinarazteko.

Beraz, 2025eko ekainaren XX(e)(a)n, XX:XXe(t)an, XXXXXX(e)ko XXXXXX(e)ra etortzera gonbidatzen zaitugu. Han, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren zuzendariak ikasturte honetan berriemaile gisa egin duzun lana onartzen duen diploma emango dizu. Bi pertsona gonbida ditzakezu, eta bertaratuko zaren berrestea eskertuko genizuke.

Bestalde, eskaera bidaliko dugu Nafarroako Gazteriaren Institutuak 300 euroko saria eman diezazun. Horretarako, dirua sartzeko kontu-zenbakia eman beharko diguzu. Zure gazte-txartelaren fotokopia ere beharko dugu.

Agur bero bat.

